

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Asteartea, 2013ko otsailaren 19a. IX. urtea. 2.547. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Jende asko elkartu zen Zizurkilgo Joxe Arregi plazan egin zen *Egia bide, askatasuna amets* ekitaldian. JONE AMONARRIZ

Espainiako banderaren aurka egiteko manifestazioa deitu dute

Bai Euskal Herriari herri ekimenak sustatuta, hogeitaz eragile bat egin dute; martxoaren 9an Tolosan izango da mobilizazioa 3

Herriarren beharretara egokitutako hondakin bilketa aldarrikatu dute

Gipuzkoa Zero Zabor mugimenduko kideek Amasa-Villabonan egin dute agerraldia 2

Osasun zerbitzuen publikotasuna eskatzeko, Marea Zuria

Elkarretaratzea eta osasun zentrorako martxa egin ditu TOPak, Tolosan 4

Caliko torneo irabazi du Lara Arruabarrena tenistak 6

Torturak etenik ez duela izan salatu dute Zizurkilen

Zizurkilgo Udalak eta Egiari Zor fundazioak antolatu dute torturatuen omenezko ekitaldia

Hogeita hamabi urte bete dira Joxe Arregi zizurkildarra torturatuta hil zutela 5

Nesken Ibarako taldeak 540 kiloko txapela jantzi du

Goma gaineko Euskal Herriko Sokatira Txapelketa eskuratu du Ibarak, azken jardunaldian tiraldi guztiak irabazita 6



Ibarako nesken sokatira taldeko kideak txapela jantzi. HITZA

MAHAI INGURUA 'Egunkaria'-ren itxiera

Martxelo Otamendi

'Egunkaria'-ko zuzendari ohia
eta 'Berria'-ko zuzendaria

Lorea Agirre

'Egunkaria'-ko kazetari ohia

Joxemi Saizar

'Egunero'-ko eta 'Hitza'-ko zuzendari ohia

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info





Amasa-Villabonako merkatu plazan egin zuten agerraldia, Gipuzkoa Zero Zaborrek. I. TERRADILLOS

«Herriar guztien artean moldatutako atez atekoa» aldarrikatu dute Villabonan

Zaborrak jasotzen dituzten herrietako biztanleekin «zor bat» badagoela uste dute mugimenduko kideek

Itzea Urkizu Villabona

Hondakin birziklagarri guztiak gaika biltzea posible dela azaldu du Gipuzkoa Zero Zabor (GZZ) mugimenduak, «herriar guztien artean moldatutako atez atekoa» martxan jarritz gero. Villabonan egindako agerraldian, munduan, Europan nahiz Gipuzkoan atez ateko bilketa sistema gisa ezagutzen diren esperientziak gogora ekarri, hauexek oinarri hartu behar direla aldarrikatu zuen, pasa den larunbatean, mugimendukoak: «Gure herrirako eredu propioa, herriar guztien artean, herriaren eta herriarren beharretara eta nahietara moldatutako atez atekoa nahi dugun».

Bide honetan, gaur egun, gero eta produktu gehiago hondakin

bilakatzen direla dio Gipuzkoa Zero Zaborrek, «gehienak nahastu eta alferrik galtzen baitira», euren ustez. Horrela, Gipuzkoan urte osoan zehar ehunka milaka tona zabor sortzen direla azpimarratu nahi izan zuten, hau arazotzat hartuz. «Arazoa hamarkadetan hor egon da, baina edukiontzietan ezkutatu izan dugu, edukiontzia lur azpian sartuz».

Mugimenduko kideek, gainera, herriarrek ere arazo honen zati direla nabarmendu zuten Vi-

Gaur egun, gero eta produktu gehiago hondakin bilakatzen direla dio GZZk

llabonan: «Jakitun gara, gu arazoaren parte garela, eta zaborretara botatzen ditugun janari hondarrak beste batzuen etxe ondora, usteltzera bidaltzen ditugula».

Honen harira, beraz, herriar guztiek zor bat dutela uste dute Gipuzkoa Zero Zabor mugimen-

duko kideek: «Gure zaborrak jasotzen dituzten herrietako biztanleekin zor bat dugu, eta haien sakrifizioak gure ahalegina eskatzen du», azpimarratu zuten.

«Material ustelgarririk ez»

«Zaborretan, zaborra ez den ezer ez joatea» bermatzeari berebiziko garrantzia eman zioten Gipuzkoa Zero Zaborreko kideek, aipaturiko zorra kitatze aldera: «Material ustelgarririk bidaliko ez diegula ziurtatu behar dugu».

Helburu honi begira, eta beren aldarri nagusia errepikatuz, «gure herrirako atez ateko bilketa sistemaren eredu propioa nahi eta behar» dela nabarmendu zuten.

Arazoari konponbidea jartzeko modurik eraginkorrena dela uste dute, eta horrela, «Gipuzkoan bilketa eraginkorrean Usurbil, Hernani, Oiartzun, Antzuola eta Orendainen hasitako bideari» jarraitu nahi diotela azaldu zuten.

Gainerako herriei ere, bide bera hartzeko deia egin zieten mugimenduko kideek, «arduraz, elkartasunez eta konpromisoz, arazoa guztiona delako».

Iruretagoienaren aurkako epaiketa hasi da Parisen

Frantziako Justizia Luis Ignacio Iruretagoiena tolosarrarekin batera beste bederatzi pertsona ari da epaitzen

I. Garcia Landa Tolosa

Frantziako Justiziak hamar pertsonen aurkako epaiketa hasi du, Parisen, tartean Luis Ignacio Iruretagoiena tolosarra dela.

Beste epaituak Garikoitz Aspiaz, Aitzol Iriondo, Jurdan Martitegi, Mikel Carrera, Oihan Barandalla, Alaitz Aramendi, Ander Mujika, Aitzol Etxaburu eta Itziar Plaza dira, eta 2007an Landetan familia bat bahitu eta hauen autoa Castellon-en (Herrialde Katalanak) atentatu bat egiteko erabiltzea leporatzen die-

te. Autoa Oropesa herritik kilometro batzura lehertu zen. Atentatu horregatik Mattin Sarasola eta Igor Portu zortzi urteko espetxe zigorra betetzen ari dira Espainian.

Atzo hasi zen epaiketak lau aste inguru iraun ditzake. Xabi Larralde, Maribi Ugarteburu eta Txelvi Moreno ezker abertzaleko kideak izan ziren, atzo, Parisen; epaiketak, Frantziak Euskal Herriko gatazkan duen parte-hartze zuzena erakusten duela dio ezker abertzaleak, eta gogora ekarri dute, Aieteko adierazpenak zuzenean eskatu ziola Frantziari, konponbidea dagokion ardura hartzea. «Estatu frantsesak bere burua Euskal Herriko gatazkaren konponketaren aldeko prozesuan inplikatu behar du», esan zuten joan aurretik ezker abertzaleak.

● tolosa@hitza.info

Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalaurrekoak erabaki dira jada

I. Urkizu Leiza

Erabakita geratu dira, pasa den asteburuan, Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalaurreko saioak. Horrela, beraz, Migel Mari Elosegi *Luze* leitzarrak, Elizondoko saioan, taulagainean, ondoan izango dituen bertsolarien izenak ezagutu ditu.

Datorren martxoaren 9an abestuko du *Luze*k, Elizondoko Lur aretoan, eta Julen Zelaieta, Aimar Karrika, Oier Lakuntza, Xabi Maia eta Saioa Alkaiza ariko dira kantuan, berarekin batera.

Saio honetarako, nahiz beste guztietarako sarrerak eskuragarri dira jada, www.beretosarreak.eu web atarian.

→ Laburrak

Eski ikastaroa antolatu du Mendibilek astebururako

LEITZA Mendibil mendi taldeak ipar eski ikastaroa antolatu du astebururako, eta gaur da izena emateko azken eguna, Maimur edo Astiz liburudendetan. Igandean 07:00etan abiatuko dira Somportera. Bazkideek 35 euro ordainduko dute, eta gainerako helduek 50.6 urtetik 15era bitartekoek, berriz, 30 euro ordainduko dute irteera.

Mahai ingurua adinekoen zaintzaileen hizkuntzaz

TOLOSA Banaiz Bagara elkar-teak antolatuta, eta Tolosako Udalaren nahiz Ikasmina: Herriz herri egitasmoaren laguntzaz, *Hizkuntzaren garrantzia adineko pertsonen zaintzan* hitzaldia izango da, gaur, 19:30ean, kultur etxean.

↓ Iragarki laburrak

LAN ESKARIAK

Etxeko lanetarako. Etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume eskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. 943 696882 / 606 521992

Garbitzaileak. Bi garbitzailek, orduka lan egiteko beren burua

eskaintzen dute, eta esperientzia handia dute jardun honetan. Besteak beste, etxeko garbiketari, plantxan, sukaldean eta abarretan lan egiteko prest daude. Bestalde, komunitateak, elkarteak, tabernak eta antzeko garbitzeko eskaintza egiten dute. Autoa badute. Interesatuak, deitu 699 589129 edo

653 729247 telefono zenbakietara.

ESKUALDATZEAK

Taxi zerbitzua Zizurkilen. Zizurkilen, taxi lizentzia eta autoa eskualdatu nahi ditut. Interesa duen edonork, dei dezala 608 57 59 00 telefono zenbakira.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Espainiako bandera jartzearen aurka egiteko manifestazioa deitu dute

Eskualdeko hogeit hamar eragilek bat egin dute «inposizioaren» aurrean, eta martxoaren 9rako deia egin dute

Eneritz Maiz

Tolosaldeko hogeit hamar eragilek bat egin dute Espainiako bandera jartzeko ia eskualdeko udal guztietara iritsi den aginduaren aurrean. «Asmo txarreko inposizio hauen aurrean, herri gisa erantzutea» eskatu dute.

Bai Euskal Herriarik sustatuta, prentsaurrekoa eskaini zuten, Amasa-Villabonako Gurea antzokia. Aralar, Eusko Alkartasuna, ezker abertzalea, EHNE, ELA, LAB, AHT Gelditu! Elkarlana, Autoeskola Antikapitalista, Bai Euskal Herriari, Bilgune Feminista, Esait, Etixerat, Euskal Herria Sozialista, Euskal Herrian Euskaraz, ezker abertzaleko gazteak, Galtzaundi, Gazte abertzaleak, Herria, Ikasle Abertzaleak, eta Jatorkin dira bat egin duten hogeit hamar eragileak. Egoerari aurre egiteko, martxoaren 9an, larunbatean, manifestazioa egingo dute Tolosako Trianguloa plaza-
tik abiatuta. Mobilizazioa



Hogeit hamar eragileetako ordezkariak agerraldia egin zuten, Amasa-Villabonan. A. MAIZ

12:00etan hasiko da, *Inposaketarik ez! Geurea ikurrina!* lelopean. Herritarrak parte hartzea deitu dituzte.

Euskal jendarte osoarengana zuzendu dira: «Gure nortasuna eta gure izatea ukatu nahi dutenen aurrean zutitzea deia luzatzen dugu». Euskal Herria desagerrarazi nahi dutela adierazi dute, eta «euskal herritarroi dagokigu gureak diren nortasun ikurren defentsa burutzea», gaineratu dute. «Ez gara espainia-

rrak ez eta frantsesak, euskal herritarrak gara, eta gure herriaren eta bere etorkizunaren jabe izan nahi dugu. Ez dugu nahi gurea ez denik», aldarrikatu dute.

Euskal Herria, izena eta izana, elkar uztartzea ezinbestekoa dela uste dute, «gure herriaren etorkizunarentzat». Horregatik, «egunegun gure izatearen isla diren nortasun ikurrak agertzeak, aldarrikatzeak eta erabiltzeak berbiziko garrantzia du gure herriarentzat», nabarmendu dute

bat egin duten Tolosaldeko hogeit hamar eragileek.

Aldi berean, pertsona bakoitzak ere, bere esparrutik, euskal herritarren eskubideen defentsan aritzeko beharra dagoela agertu dute.

Mozioa udaletxe guztietara

Ildo beretik jarraituz, Tolosaldeko udaletxe guztietan mozio bera aurkeztuko dute. Besteak beste, martxoaren 9an Tolosan egingo den manifestazioan parte hartze-

↓ 20 eragileak

- Aralar
- Eusko Alkartasuna
- Ezker abertzalea
- EHNE
- LAB
- ELA
- AHT Gelditu! Elkarlana
- Autoeskola Antikapitalista
- Bai Euskal Herriari
- Bilgune Feminista
- Esait
- Etixerat
- Euskal Herria Sozialista
- Euskal Herrian Euskaraz
- Ezker abertzaleko gazteak
- Galtzaundi
- Gazte abertzaleak
- Herria
- Ikasle abertzaleak
- Jatorkin

ko deiarekin bat egiteko eskatuko diete. Era berean, udalek, ikurriaren erabilera sustatzeko bitartekoak jar ditzatela eskatzen dute. Horrez gain, «nazio gisa agertzen gaituzten ikurrak babestu eta zabaltzeko» adierazten diete.

Alderdi politikoei nazio eskubideen defentsan aritzeko eskatzen diete. Gainera, inposizioak salatzeko eta Euskal Herria ardatz eta subjektu izango duen marko berri baten eraikitzen murgiltzeko adierazi diete.

Hogeit hamar eragileek bateratu duten mozioa datozen egunetan egingo dituzten osoko bilkuretan aztertuko eta onartuko dituzte.

● tolosaldean@hitza.info

‘Eskola autobusak’ irabazi du karrozen lehiaketa

Tolosako Udalak karroza eta konpartsen sariak banatu ditu; lau konpartsa eta karroza bat izan dira irabazleak

E. Maiz Tolosa

Tolosako inauteriak bukatu bezain azkar, inauterietako mozerro lehiaketaren sariak banatu ditu Tolosako Udalak. Ostiralean egin zuten sari banaketa udaletxeko pleno aretoan, eta karrozen atalean *Eskola autobusa* izan da irabazlea.

25 kide baino gehiagoko konpartsen artean, *Tolosako I. Arzain Txakur Txapelketa* izenekoak jaso du saria. 13 eta 25 arteko kideen konpartsetan, berriz, *Marilyn haize fin* izan da irabazlea. Aldiz, 6 eta 12 kide artekoetan, *Dinershow* izenekoak jaso du saria. Azkenik, 6 kide baino gutxiagoko konpartsen artean *Ustekabe kaxak* izan da sariduna.

Epaimahaia hilaren 14an bildu zen. Mikel Arreseigor jai batzor-



Saritu guztiak Tolosako udaletxeako pleno aretoan. HITZA

deko lehendakariarekin eta Jokin Monfort koordinatzailearekin batera, 2012ko irabazleak izan ziren, hau da, Oskar Landa, Mari Karmen Irazusta, Maite Hernandez, Itziar Lizarribar eta Joseba Usabiaga, aurtengo saridunak aukeratu.

Bestetik, Amaroitz auzoko zortzigarren Inauterietako Balkoien Lehiaketa izan da aurtengoa, eta

hauek ere sariak banatu dituzte. Irabazlea, 27. atariko Kontxi Aizpun izan da. Bigarren saria, 30. atariko Puri Nuñezentzat izan da, eta hirugarren saria 2. atariko Gema Colomok eskuratu du.

Bestalde, epaimahaia aipamen berezia egin dio Erretirodunen Beti Gazte elkarteak eraikiaren aurrealdeari.

● tolosa@hitza.info



Piñata igandean, Poca Tripa txaranga lurreamendin izan zen. JONE AMONARRIZ

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzak KAZETARIA behar du ordezkapen bat egiteko eskakizunak:

- Kazetaritzan edo Euskal Filologian lizentziatua
- EGA edo baliokidea den euskara maila izatea

kontutan hartuko da:

- Kazetaritza lanetan esperientzia izatea
- Quark X Press programa erabiltzen jakitea
- Gidatzeko baimena eta kotxea izatea

Curriculum-a bidali helbide honetara otsailaren 22a baino lehen
tolosaldean@hitza.info

harpidedunes
TXOKOA hitza

Kirolak

↓ Kirol emaitzak

PILOTA

LEHEN MAILAKO
BINAKAKO PILOTA
TXAPELKETA

Ligaxka, 9. jardunaldia

Arretxe II-Begino	17
Xala-Barriola	22
Bengoetxea VI.a-Beroiz	22
Berasaluze VIII-Albisu	17

Sailekapena

J	I
1. Irujo-Zabaleta	9 8
2. Olaizola II-Zabala	9 6
3. Bengoetxea VI-Beroiz	9 6
4. Xala-Barriola	9 4
5. Titin-Merino	9 4
6. Ezkurdi-Zubieta	9 3
7. Berasaluze-Albisu	9 3
8. Arretxe-Begino	9 2

Hurrengo jardunaldia

Martinez de Irujo-Zabaleta
Bengoetxea VI.a-Beroiz

Xala-Barriola

Titin III - Merino II

BIGARREN MAILAKO
PILOTA TXAPELKETA

Ligaxka, 6. jardunaldia

Olazabal-Arruti	16
Lemuno-Mendizabal II	22

Sailekapena

J	I
1. Gorka-Zezilio	6 6
2. Rico IV-Untoria	6 4
8. Olazabal-Arruti	6 1

Hurrengo jardunaldia

Rico IV-Untoria
Olazabal-Arruti

ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

20. jardunaldia

Ibarra-Laskorain	2-1
Santurtzi-Hirukide	8-3
Mallabia-Egintza	13-5

Sailekapena

1. Aurrera V.	49p
2. Ibarra	47p
3. Bilbo	42p
4. Santurtzi	37p
5. Hirukide	37p
6. Golerri	31p
8. Laskorain	28p
13. Egintza	19p

Hurrengo jardunaldia

Tolosala Hirukide-Ibarra

Laskorain-Mallabia

Egintza-Soloarte

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKOA

22. jardunaldia

Aurrera-Tolosa

Sailekapena

1. Hernani	48p
2. Oiartzun	47p
3. Real Union	47p
8. Tolosa	30p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa-Aretxabaleta

SASKIBOLOIA

LEHEN MAILA

18. jardunaldia

Bide Bide	61
Artieda	53

Sailekapena

1. Asesoria SAF	14-4
2. Atletiko Sn Sn	13-5
3. Mikeldi	12-6
6. Bide Bide Donostia	11-7

Hurrengo jardunaldia

Atletiko Sn-Bide Bide Donosti

SOKATIRA

GOMA GAINEKO 8X8KO

EUSKAL HERRIKO SOKATIRA

TXAPELKETA, 540 KILOTAN

3. jardunaldia

1. Ibarra	6 tanto
2. Badaioztz	3 tanto
3. Bizindar	0 tanto

Azken sailekapena

1. Ibarra	8 puntu
2. Badaioztz	7 puntu
3. Bizindar	3 puntu

GOMA GAINEKO 8X8KO

EUSKAL HERRIKO SOKATIRA

TXAPELKETA, 600 KILOTAN

Lehen jardunaldia

1. Ibarra	15 tanto
2. Abadiño	13 tanto
3. Sokarri	9 tanto

Sailekapena

1. Napurak	10 puntu
2. Ibarra	9 puntu
3. Abadiño	8 puntu
4. Iparralde	7 puntu

TENISA

KOLONBIAKO CALI HIRIKO

BIONARE TXAPELKETA

Finala

Lara Arruabarrena	6/6
Catalina Castaño	3/2

Lara Arruabarrena tenista
tolosarrak Caliko torneo irabazi du

WTA mailako bigarren txapelketa irabazi du Arruabarrena; aste honetan Bogotako torneo jokatu du

I. Terradillos Leiza

Lara Arruabarrena tenista tolosarrak Caliko (Kolonbia) Bionaire Torneo irabazi du, finalean Catalina Castaño kolonbiarrari 6-3 eta 6-2 irabazi ostean. Txapelketan zehar Arruabarrenak Alexandra Dulgheru, Chiara Scoll, Teliana Pereira eta Paula Ormaechea tenislari irabazi die finaleira iritsi aurretik.

Arruabarrenak azaldu duenez, konfiantzarekin jokatu ditu bai finalerdia eta baita finala ere: «Catalinak nik baino partida gehiago jokatu ditu aste honetan, binakoan ere oso ondo ibili baita; finalean ni baino nekatuago zegoen, freskoago iritsi naiz. Banekien partida zaila izango zela, eta horretarako prestatuta nengoen. Nik uste dut finalean dena ondo egin dudala».

Tolosarrak irabazten duen WTA-ko bigarren txapelketa da, iaz Bogotako (Kolonbia) torneoan gailendu zen. Hain justu, aste honetan ekingo dio Arruabarrenak Bogotako torneoari, iaz irabazitako txapela berriro janzteko asmoz.



Lara Arruabarrena, Kolonbian. HITZA

Jelena Jankovic serbiarra, munduko zerrendaburua izandakoa, eta Alize Cornet frantziarra izango dira bere aurkari nagusiak.

Ibarrak Euskal Herriko sokatira
txapelketa irabazi du 540 kilotan

Nesken taldeko tiralariek azken jardunaldiko tiraldi guztiak irabazi ostean jantzi dute txapela

A. Imaz Ibarra

Goma gaineko Euskal Herriko Sokatira Txapelketaren jardunaldi erabakigarria jokatu zen iragan larunbatean Ezpeletan, 8x8 540 kilotan. Tiraldi guztiak irabazi ondoren, Ibarrak lortu zuen sailekapen nagusiko lehen postua, Badaioztz eta Bizindar talde arabarren aurretik. Hirugarren jardunaldi honetara Ibarra eta Badaioztz berdindurik iritsi ziren. Zozketa egin ondoren, lehia zabaltzea bi talde hauei tokatu zitzaizen Ezpeletan. Bi tiraldiak gipuzkoarrek irabazi zituzten. Bigarren itzuli bat ere jokatu zuten, eta hemen, berriro nagusitu ziren ibartarrak. Erakustaldi hauei esker, 540 kilotan Ibarrak jantzi zuen txapela.

Iaz, pisu berean, gipuzkoarrek hirugarren postuan sailkatu ziren, Badaioztz eta Sakanaren atzetik. Aurtengoan, ordean, goraka doazela erakutsiz, lehia irabaztea lortu zuten.

600 kilotan, lehen jardunaldia

Ezpeletan 600 kiloko txapelketaren lehen jardunaldia jokatu zen 540koarekin batera. Hamaika talde lehiatu ziren, ostiralean ohartarazi baitzuen Abadiño B taldeak ez zuela jarduterik izango, bizpahiru tiralari min hartuta zituelako. Ondorioz, hauek aritu ziren lehian: Ibarra; Abadiño (Abadiño, Bizkaia); Napurak (Ezpeleta, Lapurdi); Murueta (Muruet, Bizkaia); Amaier (Amaier, Nafarroa Garaia); Baiona (Baiona, Lapurdi); Basaburua-Imotz (Basaburua eta Imotz bailara, Nafarroa Garaia); Sokarri (Arrigorriaga, Bizkaia); Txantrea (Iruñea, Nafarroa Garaia); Iparralde (Urduliz, Bizkaia) eta 6 Conceyos (Asturias, Espainia).

Lehen multzoan, Ibarra, Abadiño, Sokarri, Baiona, Basaburua-

↓ Egutegia

MARTXOAK 3, IGANDEA

■ Urduliz 500 kiloko lehen jardunaldia. 600 kilotan, aldiz, bigarren jardunaldia.

MARTXOAK 9, LARUNBATA

■ Ibarako kiroldegian 500 kiloko bigarren jardunaldia, eta 600 kilotan finala.

Imotz eta 6 Conceyos aritu ziren, eta Ibarrak mendean hartu zituen kontraio guztiak, multzoko lehen postua eskuratu. Bigarren Abadiño taldea gelditu zen, Ibarragandik bi tantora.

Bigarren multzoan Napurak talde lapurtarra izan zen jaun eta jabe, txanda eta tiraldi guztiak irabazita. Multzoko buru izateaz gain, sailekapen nagusiko lehen postua eskuratu zuten etxean jokatu zuten Napurak taldekoek. Sailekapen honetan bigarren Ibarra dago.

• Saria:
Elketa jatetxean
bi laguntzako
otordua

• Argazkiak nora eta noiz bidali:
thargazkiak@hitza.info helbidera martxoaren 3a bitarte
Argazkiak gurekin 20 argazkiak eta 300 ppp-ko prezioa izan behar dute.

Inauterietako
Argazki lehiaketa

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO hitza

Inauterietako '13

Parte hartuko duen argazki guztiak ikusgai izango dira
Inauterietako tolosaldeko.hitza.info webgunean!

Pelotadenda txapelketan txanponaren bi aldeak

Eskualdeko pilotari Mendizabal-Anduezak irabazi egin dute, eta Garmendia-Arozenak, berriz, galdu

Asier Imaz

Pelotadenda txapelketa igandean hasi zen Tolosako Beotibar pilotalekuan. Hasiera batean, eskualdeko bi pilotarik parte hartu behar zuten, baina lehen jardunaldia, Ainhoa Garmendia alegiarra gehitu zitzaion, Etxelekuren baja betez. Garmendiak

maila polita erakutsiz, oso ondo bete zuen bere papera. Emaitezi begiratuta, txanponaren bi aldeak ikusten dira: garaipena eta porrota.

Pelotadenda txapelketa gomazko paletan jokatzen da. Zortzi bikotek hartzen dute parte, multzo bakarrean, eta ligaxka bat jokatuz. Maider Mendizabal anoetarrak Anduezarekin osatzen du bikotea, eta lehen jardunaldian, 30-8 irabazi zuten. Muneta-Serrekek ez zuten euren maila eman, eta Andueza-Mendizabalek uste baino errazago irabazi zuten.

Garmendiak Nagore Arozena lizartzarrarekin jokatu zuen, eta

eskualdeko bikoteak 23-30 galdu zuen, Irazustabarrena-Ruiz de Larramendiren aurka. Partida luzea eta gogorra izan zen, ikusteko polita.

Pelotadenda txapelketaren bigarren jardunaldia otsailaren 24an, igandean, jokatuko da Hendaiara, Beltzenia pilotalekuan. Hirugarrena, aldiz, martxoaren 3an izango da Iruñeko Labrit pilotalekuan.

Multzoko lehen bi sailkatuek finala jokatuko dute, eta besteek hirugarren eta laugarren posturako lehia. Azken partida hauek martxoaren 10ean jokatuko dira, Hernanin.



Gorritz, Ainhoa Garmendia alegiarra eta Nagore Arozena lizartzarra. I.A.

Ibarrak irabazi du Laskorainen aurkako derbia, Belabietan

Hurrengo jardunaldian derbi berri bat jokatuko da Tolosako Hirukide taldearen eta Ibarraren artean

Erredakzioa

Hogei urtetako ibilbidean, estrainekoz, Laskorainek partida ofizial bat jokatu zuen Ibarrako Belabietan kiroldegian bisitari bezala. Elkarren aurka birritan besterik lehiatu ez diren arren, Tolosaldeako areto futboleko derbi guztien ama, ibartarren alde erori zen 2-1eko emaitzarekin.

Laskoraingo taldea Joseba Gil kapitaina berreskuratuta iritsi zen lehiara, ezustea emateko prest. Hasierako minutuak horren adierazle izan ziren, ibartarrak ezustean harrapatu baitzituzten. Bi baloi galdu ostean, ordea, Ibarra aurreratu zen markagailuan: 2-0. Kolpeak kolpe, tolosarrek berean jarraitu zu-

ten, eta atsedenaldia iritsi aurretik, aldea murriztea lortu zuten korner bati esker.

Aldageletatik bueltan jokoak zeharo orekatuta jarraitu zuen, bi taldeak nor baino nor eta puntuak dantzan, alde batetik bestera. Gezurra badirudi ere, markagailua ez zen gehiago mugituko.

Amaieran, laskoraindar jokalariei eta zaletuak gutxien gutxienez berdinketa merezi izan zutenaren irudipen eta aldarrikapenarekin irten ziren Belabietatik, eta jokoa eta aukerak ikusita beharbada horixe izanzen zen emaitzarik zuzenena, baina porrotak jada ez zuten erremediorik. Ibarrek garaipenarekin sailkapen nagusiko bigarren postuan jarraitzen du; Laskorainek zortzigarren.

Hurrengo jardunaldian eskualdeko bi talderen artean beste derbi bat jokatuko da. Kasu honetan, Ibarrek etxetik kanpo jokatu behar du sailkapen nagusian bosgarren dagoen Tolosako Hirukide taldearen aurka.

Beteranoen xare txapelketa ikustera jende ugari gerturatu da Iruran

Igandero jokatuko dituzte partidak; herenegun lau partida jokatu ziren Irurako trinketean

A. Imaz Irura

Igandean hasi zen Irurako beteranoen xare txapelketa. Xare Elkar-tea Saria hain zuzen ere. Ikusle ugari elkartu zen Irurako trinketean, giro ezin hobea sortuz. A. Lasa-Cosiok J. Lasa-Beitiaren aurka jokatu zuten lehen partida, eta 2-0 (15-11 eta 15-13) irabazi zuten. Bigarren partidaren Morcuende eta Lasa nagusitu ziren, Zabala-Yurritaren aurka, 15-8 eta 15-6ko emaitzarekin. Ondoren, Apeztegia-Lopetegi bikoteak 40-33 irabazi zuen Iturbe-Urkolaren aurka, eta Santano-Artolak 40-25 Guti-Sarasolaren aurka. Hurrengo igandean izango du jarraipena Irurako xare txapelketak.

Otaño-Otaegik finala Nazabal-Zubiagaren aurka jokatuko dute

Jon Irazu aizkolari zizurkildarrak ez du oraingoz apusturik jokatuko Iñaki Azurmendiren aurka

A. Imaz

Urrezko aizkolarien binakako txapelketaren finala erabakirik gelditu zen larunbatean. Joseba Otaegi eta Unai Otaño sailkatu-rik zeuden, euren aurkariaren zain. Finalerako bigarren bikotea nor izango zen Bilbon erabaki zen. Alde batetik, Nazabal-Zubiaga zeuden, eta bestetik Rekondo-Azurmendi. Finalerdia bi itzulira jokatu zen; joanekoan Nazabalek eta Zubiagak 1:50 segundoko alde lortu zuten. Jon Rekondo leitzarrak eta Iñaki Azurmendik, finalerako sailkapena lortzeko, lehia irabazteaz gain aldeari buelta eman behar zioten, beraz. Ez zen horrela izan, itzulerako lehia ere galdu egin baitzuten.

Amaieran, bikote irabazleak 21 minutu eta 52 segundo behar izan zituen lan guztiak amaitzeko. Leitzarrak eta Iñaki Azurmendik 22 minutu eta 17 segundoko gelditu zuten erlojua. Bi jardunaldiak kontuan hartuta, bi minututik gorako aldea ateratzen zuten Rekondo eta Azurmendiren, Nazabalek eta Zubiagak.

Irazuk ez du jokatuko apustua Iñaki Azurmendik apustua bota zion Jon Irazuri, 12 oinbiko norik moztu lehenago. Desafioa ondorengo hiru hilabeteren barruan jokatu nahi zuen Arriarangoak. Irazuk hasieratik apustua hartzea zaila izango zela esan zuen, «lan handia eta aizkolari handia» sartzen baitziren jokoan. Urtarrilean, Zalduaren aurka irabazi zuen desafioa, baina eta hone-tan, apustu bat jokatzeke moduan ez dagoela onartu du zizurkildarrak, «ez fisikoki eta ezta buruz ere». Irazuk bere lehentasuna txapelketak ongi prestatzea dela esan du.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



17°
9°

GOIZA OSTARTEAK
ARRATSALDEA OSTARTEAK
BEROENA 15°
HOTZENA 7°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzalea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarra: 687 410 118. ibaralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leizaldea: 687 410 118. leizalde@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

NATUR HOUSE

Elikaduran eta dietetikan adituak



**Zure giltzurruna
da gehiegikeriak
pairatzen dituen**

ZURE ORGANISMOA GARBITU

Alkatxofa, errefau beltza eta kamamila estraktuek zure organismoa garbitzen laguntzen duten ezaugarriak dituzte; gainera, modu progresiboan, pisua galtzen lagun dezakete.



Kupoi hau ekarri eta LEVANAT PLUS erostean FIBROKI gaileten kaxa bat emango dizugu opari Tolosako Naturhouse dendan (Nafarroa etorbidea, 1 Tel. 943 650 795).

NATUR HOUSE
Elikaduran eta dietetikan adituak



Jarrai gaitza Facebook orrialdan
www.facebook.com/Spain.NaturHouse

www.naturhouse.com

* Kupoia 2013ko otsailaren 28ra arte erabili daiteke **HTZT**